

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko urriaren 16an egindako ez ohiko eta premiazko bilkuran, erakunde-adierazpen hau onartu zuela, aho batez.

“Sexuen arteko desberdintasuna gizarte guztietan izaten da, eta oztopo nagusietako bat da emakumeak gizartean, ekonomian eta politikan erabat txertatzeko. Landa-eremuan larriagotu egiten dira emakumeek bizi dituzten diskriminazio-egoerak; izan ere, ez dute aukerarik lan egonkor eta kalitatezko baten bidez lanmerkatuan sartu eta bertan irauteko; oro har, azpiegitura eta zerbitzu gutxi izaten dituzte inguruan, eta, batez ere, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko balio duten horiek falta dituzte; azkenik, erabakiak hartzeko organoetan gutxi parte hartzen dute.

Beraz, lehenetasunetako bat da emakumeentzako bizi-aukerak hobetzea, haiek baitira landa-ingurunea egituratzeko eta gizarte-kohesioa lortzeko funtsezko eragileak. Emakumeek landa-eremuan duten egoerari dagokionez, ikusezintasunarekin zerikusia duen arazo espezifiko bat dago; izan ere, historikoki, emakumeek nekazaritzan eta abeltzaintzan egindako lanak ez du behar adinako aitormenik izan.

Beharrezkoa da emakume horiei aitormen profesionala eta laborala egitea sustatzen jarraitzea, batez ere, Covidaren ondorioz bizi dugun krisi-garai hauetan. Eta, bestalde, beharrezkoa da, baita ere, eragile desberdinek landa-ingurunean aukera-berdintasunaren

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el 16 de octubre de 2020, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional.

“La desigualdad entre los sexos está presente en todas las sociedades y constituye una de las principales barreras para la plena inclusión a nivel social, económico y política de las mujeres. En el ámbito rural, las situaciones de discriminación que viven las mujeres se agravan pues se enfrentan a la falta de oportunidades para incorporarse y permanecer en el mercado laboral a través de un empleo estable y de calidad, lidian con la escasez de infraestructuras y servicios en general y, en particular, de aquellos referidos a la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, o participan de forma escasa en los diferentes órganos de toma de decisiones.

Una de las prioridades es, por consiguiente, la mejora de las oportunidades de vida para las mujeres en tanto que agentes clave para la vertebración y la cohesión social del medio rural. En relación a la situación de las mujeres en el ámbito rural se distingue un tipo de problemática específica que tiene que ver con la invisibilización, ya que históricamente el trabajo que han realizado las mujeres en las explotaciones tanto agrícolas como ganaderas, no tiene el necesario reconocimiento.

Es necesario seguir promoviendo su reconocimiento tanto profesional como laboral, sobre todo en estos momentos de crisis por la covid. Y es necesario, por otra parte, coordinar los esfuerzos que realizan diferentes agentes en el medio rural en favor de la igualdad de



alde egiten dituzten ahaleginak koordinatzea, eragin handiagoko emaitzak lortzeko.

oportunidades para conseguir resultados que tengan una mayor repercusión.

Horiek horrela, honako erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:

En este sentido, presentamos la siguiente:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1. Donostiako Udalak hitz ematen du bai aurrerent, bai hurrengo urteetan, urriaren 15ean, Landa-Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko duela, gure emakume abeltzain, nekazari, artisau, zaintzaile, okin eta landaturismoko merkatariari, hau da, landa-sektoreko profesional guztiei omenaldia egiteko, landa-eremuko garapen-agentetzat duten balioa emanaz”.
=====

1. El Ayuntamiento de Donostia San-Sebastian se compromete, tanto este 15 de octubre como en años sucesivos, a conmemorar el Día Internacional de la Mujer Rural, a homenajear a nuestras mujeres ganaderas, agricultoras, artesanas, cuidadoras, panaderas, comerciantes, del sector turístico rural, es decir a todas las profesionales del sector rural, reconocerlas como agentes de desarrollo rural”. =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2020ko urriaren 26an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 26 de octubre de 2020.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

**ALKATEAK O. E. -
V.º B.º DEL ALCALDE:**